


Kanabinoideek elkarrekintza sozialean duten eragina azaldu dute

Astrozitoek odol-emaritik glukosa hartzen dute, garunari energia emateko. Aldi berean, astrozitoak neuronen kontrolpean daude, neurotransmisoreen bidez. Kontrol horretan, beste elementu batzuek ere eragiten dute; adibidez, astrozitoen hartzaileetako batzuk (1. motako kanabinoideen hartzaileak edo CB1) kalamuaren osagai psikoaktiboaren (THC) itu nagusia dira. Elkarrekintza horrek glukosaren metabolismoan nola eragiten duen argitzen saiatu dira EHuko Medikuntza eta Erizaintza Fakultateko Neurozientzietako Saileko eta Achucarro Zentroko ikertzaileak, nazioarteko beste ikertzaile batzuekin elkarlanean.



Kanabinoideek elkarrekintza sozialean duten eraginaren muina azaldu dute. ARG.: Pedro Grandes/EHU.

Saguekin egindako ikerketetan ikusi dute astrozitoen mitokondrietan CB1 kanabinoideen hartzaileak aktibatzeak eragotzi egiten duela garunean glukosa metabolizatzea eta laktatoa sortzea: astrozitoek oxigeno-espezie errektibo gutxiago sortzen dute, eta horrek kalte egiten dio laktato-ekoizpen glukolitikoari. Hala, asaldurak sortzen dira funtzio neuronalean; estres neuronala sortzen da, eta kalte egiten dio elkarrekintza sozialeko jokabideari. [Nature aldizkarian argitaratu dute ikerketa.](#) ●

Landareen sustraietako mikrobiotan bakterio bat da nagusi



Arabidopsis thaliana espezieko landareekin egin dute ikerketa. ARG.: Wikimedia Commons.

Gizakion mikrobiota bezalaxe, landareen mikrobiota ezagutzeak ere interes handia du. Izan ere, lurreko bakterioek landareen hazkuntza eta osasuna baldintzatzen dute. *Arabidopsis* landarearen hazkuntzan bakterioek nola eragiten duten argitzeko, 185 espezieko komunitate bakteriano sintetikoaz inokulatu dute Ipar Karolinako Unibertsitateko (AEB) ikertzaileek. Ikusi dutenez, [genero bakteriano batek du landareen hazkuntzan eragin handiena](#) —*Variovorax* generoak—, landareen hormona-maila manipulatu eta beste bakterioek eragindako aldaketak inhihi baititzake.

Seinale kimiko asko trukutzen dituzte landareek eta lurreko bakterioek: bakterioak, auxinak —landareen hormonak— sortuz edo degradatuz, landarearen hazkuntza sustatu edo moteldu dezakete. Baina *Variovorax* generoko bakterioek bakterio-komunitate osoak eragindako hazkuntza inhihitzeko gaitasuna dute.

Ikertzaileen arabera, garrantzitsua da errizosferan gertatzen diren interakzio kimikoen sare hori guztia ondo ezagutzea eta optimizatzea, labore erresistenteak eta emankorrek lortzeko estrategia ekologikoagoa izan daitekeelakoan. ●